

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**59/2017 Foru Goberno Kontseiluaren Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundeak aterpeetan eskainitako zerbitzuengatik eta aterpeetan erreserba egin eta haietako hainbat gela erabiltzeagatik ordaindu beharreko 2018rako prezio publikoen araudia**

Tasa eta prezio publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak (ALHAO 147 zenbakia, 1989/12/22koa) 26.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

67/2010 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetxeetan emandako zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arautegia onartu zuen. Dekretu horren bigarren Eranskinean, aplikatu beharreko prezio publikoak jasotzen dira.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2017ko abenduaren 1ean, ondokoak proposatu ditu: eta arau horren II. eranskinean jasotako prezio publikoak aldatzea ere.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren.

Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zurretiko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Euskera, Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea 67/2010 Foru Dekretuak, Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan eskaintzen diren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoen araudia arautzen duenak, 2018rako izango duen aldaketa, zeina honekin batera doan agirian ageri baita.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendariari ahalmena ematea dekretu honetan jasotzen ez dena ebazteko.

Hirugarrena. Honako ebazpen hau ALHAO argitaratzea, 2018ko urtarrilaren batetik aurrera legezko eragina izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuta*

**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**

**I. eranskina**

2018. urtean Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuengatik eska daitezkeen prezio publikoak.

1. 2018an hauexek izango dira Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak egiteagatik prezio publikoen tarifak:

2018RAKO PREZIO PUBLIKOAK			
ZERBITZUAK	HITZARTUA	ARRUNTA	
	GAZTEAK	GAZTEAK	HELDUAK
Mantenu osoa	20,80	26,70	35,20
Bazkaria	7,40	8,00	9,80
Afaria	7,40	8,00	9,80
Ostatua eta gosaria	12,20	15,70	20,80
Izarak alokatzea	3,40	3,40	3,40
Espejoko aterpetxeko tarifetan, likidazio osoaren gaineko ehuneko 20ko hobaria emango da, 12 pertsonatik gorako gazte taldeek lehenengo mantenu osoaz gozatzen dutenetik aurrera; betiere, urtarrilaren 1etik maiatzaren 27ra bitarteko asteburuetan eta irailaren 29tik abenduaren 30era bitartekoetan.			
Zerbitzu bereziak	Instalazioak hitzartutako ordutegitik kanpo erabiltzea.		
Kostuaren araberako faktura	Gutxienez 2 euro fakturatuko da pertsonako.		